


"#Eskubideak ez dira Kontua"


Elkartasun Eskolak

2025-2026



Elkartasun Eskolak programa 2009-2010 ikasturtean jarri zen martxan, Nafarroako irakasleei **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaileari** buruzko aholkularitza eta prestakuntza eman nahi dien Prestakuntza Planaren baitan. Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea hezkuntza-prozesu bat da, eta aberastasunaren eta boterearen banaketan gertatzen diren desberdintasunez, horien arrazoiez eta ondorioez jabetzea du helburu, baita mundu bidezkoagoa lortzeko elkartasunezko eta konpromiso sozialeko jarrerak bultzatzea ere.

Elkartasun Eskolak programan Nafarroako ikastetxe guztiek (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzakoak) parte har dezakete, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea jorratzen ari direnek nahiz jorratzen hasi nahi dutenek.





Programa hau Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako GGKEen Koordinakundeak sustatzen dute.

Kasu honetan, Nafarroako Nuevo Futuro Elkarteak Lizarralde BHI (Lizarra), Centro Puente (Gares) eta Atarrabia DBHI (Atarrabia) ikastetxeekin elkartzen da; laguntza, aholkularitza eta orientazioa ematen die, eta beharrezkoak diren baliabideak eta materialak, garapenerako, nazioarteko lankidetzarako, elkartasunerako eta herritartasun global eraldatzailerako hezkuntza-proposamenak gara ditzaten.



WWW.LABOEDUCA.ORG

¿Zer eskainiko dugu 2025-2026 ikasturtean?

1

Aholkularitza

Banakako edo taldeko aholkularitza irakasleei, programazioetan eta unitate didaktikoetan Hegoalde Globalarekin, giza eskubideekin eta erronka globalekin (GJH) lotutako gaiak sar ditzaten, hezkuntza-arloko legeek ezartzen duten bezala.

2

Antolatze

Ikasgelan edo ikastetxean elkartasunarekin eta giza eskubideekin lotutako jarduerak antolatzea.

3

Euskarri

Elkartasunarekin eta giza eskubideekin lotutako ikastetxeko jardueretan laguntzea (Eguberrietako saski solidarioen proiektuan, adibidez).

4

Heziketa

Giza Eskubideei, Hegoalde Globalari, GJHei, herritartasuna sustatzeko metodologiei, erronka globalei eta abarrei buruzko prestakuntza.

5

Aukerak

Ikasturtean zehar sortuko diren aukerak (pertsona garrantzitsuen bisitak, trukeak, gonbidapenak).

¿NOLA EGITEN DUGU?

Garrantzitsua da prozedura sinplea izatea eta gure konfiantzazko harremanean oinarrituta egotea. Ikastetxeko jardueretan eta ikasgelako ekimenetan lagunduko da, irakasleekin nahiz banaka. Gure proposamena premia bakoitzera egokitzea nahi dugu, eta, beraz, beharrezkoa da aldez aurretik komunikazioa izatea.

LIZARRALDEKO BHIN PROGRAMATUKO DA:

1

Eskubideei eta bakearen kulturari buruzko jardura bat (DBHko 1. eta 2. mailetan).

2

Arrazismoari buruzko jardura bat ikasgelan, eskaeraren arabera (jolasa).

3

Taldeentzako laguntza saski solidarioen proiektuan, laguntza eta komunikazio- eta artikulazio-baliabideekin.

4

Podcastak egiteko aholkularitza- eta prestakuntza-saioak (nahieran), eta GJHeKin, eskubideekin eta Hegoalde Globalarekin lotutako ikaskuntza-egoerei buruzkoak.

Baliabide eta laguntza espezifikoak eskatu ahal izango dira:

Irakasle partikularren edo taldeen eskaerak, elkartasunarekin eta giza eskubideekin lotutako jardueretan laguntzeko.

Zuzendaritzak prozesu osoaren berri izango du, baina klaustroan zenbait erreferente egongo dira, eta horiek izango dira programatutako jarduerak eta sortzen diren eskaerak antolatuko dituzten solaskideak.

Erreferentziak

- Ikaskuntza-egoerak sortzeko baliabide didaktikoak:

<https://laboeduca.org/escuelas-solidarias/>

- Herritartasun globala sustatzeko baliabide didaktikoak:

<https://laboeduca.org/educacion-para-la-ciudadania-global-pag/>

JARRI ZUZENEAN HARREMANETAN EKIPOAREKIN
LABOEDUCA_ANNF: ESPACIOKREA@GMAIL.COM

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



escuelas solidarias  elkartasun eskolak

WWW.LABOEDUCA.ORG